Esp. kodea: 2022CHOZ0005
Titularra: HIRIGINTZA SAILA

Gaia: JOSE LUIS IÑARRA (ALTAMIRA) birurbanizatzeko proiektua.
Hasiera data: 2022/02/01

"JOSE LUIS IÑARRA (ALTAMIRA) BIRURBANIZATZEKO PROIEKTUA" IDAZTEA ADJUDIKATZEKO KLAUSULA TEKNIKOEN AGIRIA	**PLIEGO DE CLÁUSULAS TÉCNICAS PARA ADJUDICAR LA PRESTACIÓN DEL SERVICIO PARA LA REDACCIÓN "PROYECTO DE REURBANIZACIÓN DE JOSE LUIS IÑARRA (ALTAMIRA)"**
I. EMAN BEHARREKO ZERBITZUAREN EZAUGARRIAK	**I. CARACTERÍSTICAS DE LA PRESTACIÓN**
1. KONTRATUAREN XEDEA.-	***1.* OBJETO DEL CONTRATO. -**
Kontratuaren xedea da "Jose Luis Iñarra (Altamira) birurbanizatzeko Proiektua" idazteko zerbitzua ematea.	Es objeto del contrato la prestación del servicio para la redacción del "Proyecto de reurbanización de Jose Luis Iñarra (Altamira)".
***2.* EGIN BEHARREKO LANEN DESKRIBAPENA**	**2. *DESCRIPCIÓN DEL TRABAJO A REALIZAR.***
Prestazioa izango da hainbat jarduketa egitea, zehaztuak preskripzio teknikoen agirian, kontratuaren gainerako agirietan eta bereziki atal honetan.	La prestación consistirá en la realización de un conjunto de actuaciones que se definen en el Pliego de Prescripciones Técnicas, en el resto de documentación contractual y en particular en el presente apartado.
Xedea eta helburuak	**Objeto y objetivos**
Lana izango da Jose Luis Iñarra (Altamira) ingurua berriro urbanizatzeko proiektua idaztea.	El trabajo consistirá en la redacción del proyecto de reurbanización del área de Jose Luis Iñarra (Altamira).
Jardute eremua grafikoki dago jasota Agiri honekin batera doan I. Eranskinean	El ámbito de actuación se refleja gráficamente en el Anexo I que acompaña al presente Pliego.
Dokumentuak eremu horretan egin beharreko lanen banakapen teknikoa jasoko du, gutxienez esku hartzeko 5 eremutan banatuta, eta eremu horiek funtzionalki homogeneizatutako eremuei erantzungo diete.	El documento contemplará un desglose técnico de las tareas a realizar en el citado ámbito, distribuido en base al menos 5 zonas de intervención, las cuales responderán a ámbitos funcionalmente homogeneizados.
Obrak esleitzeko behar den dokumentazio guztia eduki beharko du zona horietako bakoitzak, nahiz eta horietako bakoitza aldi batean baino gehiagotan egin daitekeen.	Deberá contener toda la documentación necesaria para la adjudicación de las obras cada una de esas zonas, sin perjuicio de que cada una de ellas pueda ser acometida en eventuales diferentes fases.

Esp. kodea: 2022CHOZ0005
Titularra: HIRIGINTZA SAILA

Gaia: JOSE LUIS IÑARRA (ALTAMIRA) birurbanizatzeko proiektua.
Hasiera data: 2022/02/01

Hirigintza, Ingurumena eta Mugikortasun Batzordeak 2021eko ekainaren 14ko diktamenean jasotakoa kontuan hartuta (II. eranskinean erantsita), honako gai hauei buruzko xehetasun guztiak aztertuko dira:	Atendiendo al dictamen de la Comisión de Urbanismo, Medio Ambiente y Movilidad de fecha 14 de junio de 2021 (adjuntos así mismo como Anexo II), se analizarán con detalle las cuestiones relativas a:
-Jose Luis Iñarra kalearen lehen zatia (Obenerreka alearekin bat egin artekoa) berrantolatu eta urbanizatzea.	- Reordenación y urbanización del primer tramo de la calle José Luis Iñarra hasta su confluencia con la calle Obenerreka.
-Altamirazpi kalea berrantolatu eta urbanizatzea.	-Reordenación y urbanización de la calle Altamirazpi.
-Jose Luis Iñarra kaleko etxe multzoaren barrualdeko plaza berrurbanizatzea.	-Reurbanización de la plaza interior del complejo de casas de la calle José Luis Iñarra.
-Altamirazpi gunea oinezkoen ibilbidearekin batzea, ibilbide irisgarri baten bidez.	-Union de la zona de Altamirazpi con el itinerario peatonal mediante un itinerario accesible.
-Jose Luis Iñarra kaleko goialdeko guneari irisgarritasuna ematea, igogailu baten bidez.	- Accesibilidad a la zona alta de la calle José Luis Iñarra mediante un ascensor.
Lanaren faseak	**Fases del trabajo**
Lana egingo da etapa hauetan:	El trabajo se desarrollará en las siguientes etapas:
"Lehen hurbilketa egitea" da, zienean prozesu parte-hartzailean jasotako informazioa eta helburuak aztertuko diren; bestalde, horiek zehazteko eta egiteko beharrezkoa diren irizpide teknikoak ezarriko dira. Beharrezkoa izanez gero, esku hartzeko eremuren alternatiba posibleak islatuko dira.	Realizar la "primera aproximación" en la que se analizará la información y los objetivos recogidos en el proceso participativo y se establecerán los criterios técnicos necesarios para su concreción y elaboración**.** Caso de resultar necesario se reflejarán posibles alternativas para alguna de las zonas de intervención.
"Antolamendu proiektua" idaztea. Irizpideak zehaztu ostean, antolamendu proiektua idatziko da zeinak, alternatibak barne bilduko dituen. Horiek eduki behar dute behar adina xehetasun maila, udalak aukeratu ahal dezan zer aukera garatu behar duen. Zehazki, proiektugileak aztertu beharko du zer ondorio izango duen alternatiba bakoitzak ekonomian, gizartean, ingurumenean eta paisaian.	Redacción del "proyecto general del ámbito de ordenación", el cual, una vez definidos los criterios, se redactará un proyecto de ordenación deberá tener un nivel de detalle suficiente para que el Ayuntamiento pueda dar a conocer la opción a desarrollar. En concreto, el proyectista deberá analizar los efectos económicos, sociales, ambientales y paisajísticos de cada zona de intervención.

Idatziko da "exekuzio proiektu bat", zeinak edukiko dituen agiri honetako 4. atalean ezarritako agiriak. Proiektuak erantzungo die udalak zehazten dituen ezartze baldintzei.	Se redactará un "proyecto de ejecución" que contendrá la documentación establecida en el apartado 4 de este documento. El proyecto responderá a las condiciones de implantación que determine el ayuntamiento.
Bestalde, proiektua parte-hartze prozesu baten aztertu daitekeenez, horretarako beharrezko dokumentazioa prestatu beharko da (memoria, planoak, panelak…).	Por otro lado, y para que el proyecto en algunas de sus fases de elaboración pudiera ser analizado en un proceso participativo, el contrato incorpora el deber preparar la documentación necesaria (memoria, planos, paneles).
3. EXEKUZIO EPEA	***3.*** **PLAZO DE EJECUCIÓN**
Kontratuaren xede diren lanen exekuzio epea izango da SEI HILEKOA, eta epe partzialen xehetasun hau izango du.	El plazo de ejecución de las labores objeto del contrato será de SEIS MESES, con el siguiente desglose de plazos parciales:
-BI HILABETE, lehen hurbilketa egiteko eta finkatutako irizpideak zehazteko.	-DOS MES para labores de realización de una primera aproximación y concreción de los criterios establecidos
-BI HILEKOA, antolamendu proiektua idazteko, hura zehazteko beharreko diren irizpideak jakinarazten direnetik.	-DOS MESES para la redacción del Proyecto de ordenación, desde la notificación de los criterios necesarios para la concreción del mismo.
-BI HILEKOA, exekuzio proiektua idazteko eta gainerako agiri osagarriak egiteko, antolamendu proiektua onartuta dagoela jakinarazten dutenetik.	-DOS MESES para la redacción del Proyecto de ejecución y resto de documentación complementaria, desde la notificación de la aprobación del Proyecto de ordenación.
Exekuzio epe osoa hasiko da kontatzen kontratuaren adjudikazioa jakinarazi eta hurrengo egunetik, eta eten egingo da horri buruz udalak definitu behar duen bakoitzean, eta horretarako dagozkion aktak egingo ditu edo eteteko akordioak	El plazo total de ejecución comenzará a contar desde el día siguiente al de la notificación de la adjudicación del contrato, interrumpiéndose cada vez que sea necesaria definición municipal al respecto, para lo cual se levantarán las correspondientes actas o se adoptarán los respectivos acuerdos de suspensión y reinicio.
4. ***PROIEKTUAK EDUKI BEHAR DITUEN AGIRIAK, AGIRI OSAGARRIAK ETA EUSKARRI INFORMATIKOA***	4. ***DOCUMENTOS QUE HA DE CONTENER EL PROYECTO, DOCUMENTACIÓN COMPLEMENTARIA Y SOPORTE INFORMÁTICO***
Proiektu teknikoaren edukia	**Contenido del proyecto técnico**

Esp. kodea: 2022CHOZ0005
Titularra: HIRIGINTZA SAILA

Gaia: JOSE LUIS INARRA (ALTAMIRA) birurbanizatzeko proiektua.
Hasiera data: 2022/02/01

Proiektu teknikoak eta gainerako agiri osagarriek nahikoa dokumentazioa eduki behar dute obra eta haren prozesua modu argian eta zehatzean irudikatzeko, eta jarraituko dituzte aplikazioko gutxieneko irizpideak, indarrean dagoen kontratazio legeriaren arabera (teknikoa, sektore publikoaren kontratuena).	El proyecto técnico y el resto de los documentos complementarios deberán contener la documentación suficiente para plasmar la obra y su proceso de ejecución de forma clara y concisa, siguiendo los criterios mínimos de aplicación según la legislación vigente (técnica, de contratos del sector público…).
Proiektu teknikoak frogatu beharko du teknikoki zer soluzio proposatu diren, araudi tekniko aplikagarriak eskatzen dituen zehaztasunen arabera.	El proyecto técnico habrá de justificar técnicamente las soluciones propuestas de acuerdo con las especificaciones requeridas por la normativa técnica aplicable.
Gainera, barne hartzen dira segurtasun eta osasun koordinazioko lanak proiektuaren fasean.	Además, se incluyen las labores de coordinación de seguridad y salud en fase de proyecto.
Proiektu teknikoarekin batera nahitaezko agiri osagarri hauek etorriko dira, eta horiek jasota daude lizitazio oinarriaren prezioan.	El Proyecto Técnico vendrá acompañado de los siguientes documentos complementarios obligatorios, los cuales han sido contemplados en el precio tipo de licitación:
-Lanen garapen programa edo izaera adierazgarriko obra plana.	- Programa de desarrollo de los trabajos o plan de obra de carácter indicativo.
- Segurtasun eta Osasun azterketa.	- Estudio de Seguridad y Salud.
- Kalitate kontroleko programa.	- Programa de Control de Calidad.
-Beharrezkoak diren instalazio proiektu espezifikoak, dagozkion ikus-onetsiekin (Proiektu elektrikoa, eta abar)	-Proyectos específicos de instalaciones que resulten necesarios, con sus correspondientes visados (Proyecto eléctrico, etc.)
-Administrazioak jakin dezan, Eraikuntza Proiektuari zuzenean egotzi ezin dakizkiokeen kostuak hartzen dituen aurrekontua.	-Presupuesto para conocimiento de la Administración que contemple los costes no imputables directamente al Proyecto de Construcción.
-Egituren zimendazioko azterketa geoteknikoa.	- Estudio geotécnico para la cimentación de estructuras.
- Esku hartzearen ingurumen azterketa.	- Análisis ambiental de la intervención.
-Exekuzio programa xehatua eremu horretan egin behar diren zereginei buruz.	- Programa de ejecución detallado de las tareas a realizar en el citado ámbito.

-Desjabetzen eranskina, hala badagokio.	-Anexo de expropiaciones, en su caso.
-Jasotze takimetrikoa, 1:200 eskalan, kartografiarik ez daukaten lekuenak, proiektua idazteko ahalik eta xehetasun eta kalitate onenarekin.	- Levantamiento taquimétrico a escala 1:200 de aquellas zonas de las que no se disponga cartografía para desarrollar la redacción del proyecto con el suficiente detalle y calidad.
-Azterketa egitea hondakinak kudeatzeko: Erreferentziatzat manual bat erabiliko da kudeaketa azterketak idazteko, eraikuntza, birgaitze eta botatze obretan, IHOBEk argitaratua, eta baita ere EH AURREZTEN informatika tresna. Azterketan sartu beharko dira hainbat aspektu, araudia betetzea gainditukо dutenak, manual horretan aipatuak markagailu urdinez.	-Estudio de gestión de residuos: Se utilizará como referencia el Manual para la redacción de estudios de gestión de RCD en obras de edificación, rehabilitación y demolición publicado por IHOBE y la herramienta informática EH AURREZTEN. El Estudio deberá incluir aspectos que sobrepasen el cumplimiento de la normativa señalados en este manual con marcadores azules.
-Eraiste proiektuak maximizatu behar du materialen aprobetxamendua, eraiste hondakin direnena, eta minimizatu behar du isurtegirako den frakzioa.	-El proyecto de derribo deberá maximizar el aprovechamiento de los materiales que constituyen residuo de demolición, minimizando la fracción destinada a vertedero.
-Hondealanetan eta eraiste lanetan hondakinak sortuko dira ahalik eta gutxien eta materialak berrerabiliko dira in-situ ahalik eta gehien.	-Se deberá minimizar la generación de residuos y maximizar la reutilización in-situ de los materiales procedentes de excavaciones y demoliciones de la obra.
-Proiektuak ezarri beharko ditu, hondakinak kudeatzeko azterketaren bidez, helburu espezifikoak, neurgarriak, lorgarriak, errealistak eta denboragarriak, behintzat sortutako hondakinen % 70 baloratzekoak. Ezin bada lortu halako balorazio mailarik, justifikatu beharko da zergatik.	-El proyecto deberá establecer, a través de su Estudio de gestión de residuos, objetivos específicos, medibles, alcanzables, realistas y temporizables de valorización de al menos un 70 % de los residuos generados previstos. En caso de no ser posible alcanzar estos niveles de valorización se deberá justificar por qué.
Lursaila egokitzeko, lehenetsi beharko da erabiltzea agregakin birziklatuak, 2015eko urtarrilaren 12ko aginduan ezarritakoa betetzeko, zeinaren bidez ezartzen diren baldintza batzuk eraikuntza eta eraiste hondakinen baloraziotik datozen agregakin birziklatuak erabiltzeko, betiere betetzen badira materialaren kopuru, kalitate eta hurbiltasun baldintzak. Memorian justifikatu beharko da zer kasutan erabili behar den halako materiala.	Para el acondicionamiento del terreno se deberá priorizar el uso de áridos reciclados cumpliendo lo establecido en la orden del 12 de enero de 2015 por la que se establecen los requisitos para la utilización de los áridos reciclados procedentes de la valorización de residuos de construcción y demolición, siempre que se cumplan los requisitos de cantidad, calidad y proximidad del material. En la memoria se deberá justificar los casos en lo que no

	se use este tipo de material.
Aurkezteko era	**Forma de presentación**
Proiektu teknikoak eta gainerako dokumentu osagarriek behar besteko dokumentazioa izan beharko dute obra osoa zehatz islatzeko eta gauzatze prozesua argi zehazteko. Hori guztia, Administrazio Publikoetarako indarrean dagoen kontratazio-legediaren arabera aplikatzeko gutxieneko irizpideei jarraiki.	El Proyecto Técnico y resto de documentos complementarios deberán contener la documentación suficiente para plasmar toda la obra, en cada una de las zonas de intervención, y su proceso de ejecución de forma clara y concisa, siguiendo los criterios mínimos de aplicación según la legislación de contratación vigente para las Administraciones Públicas.
Proiektuak frogatu beharko du teknikoki zer soluzio proposatu diren, araudi tekniko aplikagarriak eskatzen dituen zehaztasunen arabera.	El proyecto habrá de justificar técnicamente las soluciones propuestas de acuerdo con las especificaciones requeridas por la normativa técnica aplicable.
Proiektua honela entregatu behar zaio udalari: bai paperean, DIN formatua, bai euskarri informatikoan, CDan, Arrasateko Udalak erabilitako programetan eta bertsio informatikoetan: testua word-en idatzita, *.doc; planoak AutoCad *.dwg, plano bakoitza izango da marrazki fitxategi bat eta aurrekontuan *.dbd formatuan ETRS89-UTM30 koordenadatan, cype-ren Arquímedes programa.	El proyecto deberá ser entregado al Ayuntamiento tanto en soporte papel, en formato DIN, como en soporte informático, en CD, en los programas y versiones informáticas utilizadas por el Ayuntamiento de Arrasate: el texto escrito en Word *.doc; los planos en AutoCad *.dwg en coordenadas ETRS89-UTM30, cada plano se corresponderá con un fichero de dibujo y los presupuestos en formato *.dbd programa Arquímedes de cype.
Lizitazio prezioan sartzen da agirien 4 ale ematea paperean.	El precio de licitación comprende la entrega de 4 ejemplares de la documentación en papel.
Behar diren azterketak	**Estudios necesarios**
Kontratuaren prezioan sartzen dira lan hauek guztiak, beharrezkoak direnak kontratua egoki exekutatzeko: jasotze takimetrikoa, topografiako lan osagarriak, azterketa geoteknikoa, esku hartzearen inguru azterketa…).	En el precio del contrato se incluyen todas las labores necesarias para la correcta ejecución del contrato (levantamiento taquimétrico, labores complementarias de topografía, el análisis geotécnico, el análisis ambiental de la intervención...).
5. *PROIEKTUAK BETE BEHAR DUEN ARAUDIAK.*	**5. *NORMATIVA A CUMPLIR POR EL PROYECTO***

Proiektuak arau hauek bete behar ditu:	El Proyecto deberá cumplir con la siguiente normativa:
- Indarrean dagoen legeria eta araudia ingurumena babesteari buruz. -Indarrean dagoen hirigintza planeamendua. - Indarrean dauden udal ordenantzak. -Indarrean dagoen legeria segurtasunari eta osasunari buruz. - Irisgarritasuna sustatzeari buruzko legea, baita ere, arau teknikoak hiriguneetako, gune publikoetako, eraikuntzetako eta informazio eta komunikazio sistemetako irisgarritasun baldintzei buruz.	- Legislación y Normativa vigente en materia de Protección del Medio Ambiente. -El planeamiento urbanístico vigente. -Las Ordenanzas municipales en vigor. -La legislación vigente en materia de Seguridad y Salud. -La ley sobre promoción de la accesibilidad, así como las normas técnicas sobre condiciones de accesibilidad de los entornos urbanos, espacios públicos, edificaciones y sistemas de información y comunicación.
- Eraikuntzaren Kode Teknikoa (EKT).	-Código Técnico de la Edificación (CTE).
-Udal ordenantza, proiektuak idatzi eta urbanizazio obrak exekutatzeko.	-La ordenanza municipal de redacción de proyectos y ejecución de obras de urbanización.
- Jasogailuei buruz indarrean dagoen araudia.	-La normativa vigente sobre aparatos elevadores.
- Eta indarrean dagoen gainerako araudia, nahitaez bete beharrekoa.	-Y demás normativa en vigor de obligado cumplimiento.
6. UDALAK EMANDAKO AGIRIAK	***6. DOCUMENTACIÓN FACILITADA POR EL AYUNTAMIENTO***
Agiriaren xede den proiektua idazteko, udalak agiri hauek emango dizkio adjudikaziodunari:	Para la redacción del Proyecto objeto del pliego el Ayuntamiento facilitará al adjudicatario la siguiente documentación:
-Indarrean dagoen planeamendua: planoak eta ordenantzak. -Kartografia, paperean eta euskarri informatikoan (Autocad *.dwg). -Arrasateko Udalerriko Mugikortasun Integralaren Plana	-Planeamiento vigente: planos y ordenanzas. -Cartografía en soporte papel y soporte informático (Autocad *.dwg). -Plan de Movilidad Integral del Municipio de Arrasate.

Adjudikaziodunak ezingo ditu erabili udalak emandako agiriak, ez bada kontratuaren xedea betetzeko baino, eta hura zaintzearen arduraduna izango da; hortaz, erantzun beharko du baldin eta agiriok behar ez bezala erabiltzen baditu, edo hondatu edo galtzen baditu. Betebehar hori bete ez izanak ekarriko du kalteak ordaintzea udalari, hau da, sortzen diren kalte eta ordain guztiak ordaintzea.	El adjudicatario no podrá utilizar la documentación facilitada por el Ayuntamiento con otra finalidad que la del mero cumplimiento del objeto del contrato, siendo responsable de su custodia, lo que implicará responder ante cualquier uso indebido que de los mismos se hiciere, así como de su deterioro o extravío. El incumplimiento de esta obligación supondrá el deber de indemnizar al Ayuntamiento todos los daños y perjuicios que para el mismo se deriven.
7.- IDAZLEAREN TITULAZIO AKADEMIKOA	***7.- TITULACIÓN ACADÉMICA DEL REDACTOR***
Pleguaren xede den proiektua idazteko arduradunak eta idazketa-taldearen koordinatzaileak goi-mailako arkitektoari edo bide, ubide eta portuetako ingeniariari edo industria-ingeniariari dagokion titulazioa izan beharko du.	La persona responsable de la redacción del Proyecto objeto del pliego y coordinador del equipo redactor, deberá contar con la titulación correspondiente a Arquitecto Superior oIngeniero de Caminos, Canales y Puertos, o Ingeniero Industrial.
Edozelan ere, alderdi zehatzetan, haien espezialitateei eta eskumen espezifikoei dagozkienak, eta bereziki instalazio finkoei buruz, esku hartu dezakete arkitektura edo ingeniaritza eremuko beste teknikari tituludun batzuek, eta beren lanak sinatuko dituzte, proiektu egileak koordinatutakoak. Esku-hartze espezializatu horiek nahitaezkoak izango dira, hala ezartzen badu legezko xedapenak, erregulatzen duena dena delako jardueraren sektorea.	No obstante, en los aspectos concretos correspondientes a sus especialidades y competencias específicas, y en particular respecto de las instalaciones fijas, podrán intervenir otros técnicos titulados del ámbito de la arquitectura o de la ingeniería, suscribiendo los trabajos por ellos realizados y coordinados por el proyectista. Dichas intervenciones especializadas serán preceptivas si así lo establece la disposición legal reguladora del sector la actividad de que se trate.
8.- PROIEKTUAREN GERENTZIA	***8.- GERENCIA DEL PROYECTO***
Gerentzia Arrasateko Udalak hartarako izendatutako udal teknikariek burutuko dute, eta udalaren solaskide jardungo dute. Gerentzia hori arduratuko da lanak gainbegiratzen eta Proiektu hori idazteko oinarrizko irizpideak ezartzen.	La Gerencia será ejercida por los Técnicos Municipales a tal efecto nombrados por el Ayuntamiento de Arrasate y que actuarán como interlocutores del mismo. Dicha Gerencia se encargará de supervisar los trabajos y establecer criterios básicos para la redacción del referido Proyecto.
9.- EUSKARAREN ERABILERA	**9.- UTILIZACIÓN DEL EUSKARA**
1.Arrasateko Udal Barneko Euskararen Erabilera Planak ezarritakoaren arabera, enpresa	1.De conformidad con lo establecido por el Plan de Uso del Euskera del Ayuntamiento de Arrasate,

adjudikaziodunak hizkuntza irizpide hauek erabili beharko ditu: a) Euskararen Erabilerarен Planak ezarritakoaren arabera, kontuan izanik Arrasateko Udalaren lan hizkuntza euskara dela, enpresa adjudikaziodunaren harremanak Udalarekin, ahozkoak zein idatzizkoak (kontratuak, fakturak, txostenak, bilerak, kontsultak...) euskaraz izango dira. Agiri nagusiak idatzi egiten badira, idatzi behar dira euskaraz eta gaztelaniaz.	la empresa adjudicataria deberá utilizar los siguientes criterios lingüísticos: a) De acuerdo con lo establecido en el Plan de Uso del Euskera, teniendo en cuenta que la lengua de trabajo del Ayuntamiento de Arrasate es el euskera, las relaciones tanto orales como escritas (contratos, facturas, informes, reuniones, consultas...) de la empresa adjudicataria con el Ayuntamiento serán en euskera.
b) Agiri nagusiak idatzi egiten badira, idatzi behar dira euskaraz eta gaztelaniaz.	b) Los documentos principales que se redacten deberán redactarse en euskara y castellano.
c) Kontratuari esleitutako lantaldeko pertsona batek eduki beharko du, gutxienez, 3. Hizkuntza eskakizunaren pareko maila, eta ziurtatu egin beharko du. Maila hori egiaztatu dezake bi baliabide hauetako edozeinekin:	c) Una persona del equipo asignado al contrato deberá tener, al menos, un nivel equivalente al perfil lingüístico 3 y acreditarlo. Dicho nivel podrá ser acreditado mediante cualquiera de los dos medios siguientes:
2. Dagokion egiaztagiria aurkeztea.	2. Presentación de la documentación acreditativa correspondiente.
3. Proba bat gainditzea, Arrasateko Udalak prestatua (proba gainditzeak ez du eraginik izango lizitazio honetatik kanpo).	3. Superación de una prueba preparada por el Ayuntamiento de Arrasate (la superación de esta prueba no surtirá efectos fuera de la presente licitación).
d) Lana egin bitartean, bermatuko da herritarren eskubidea euskaraz arreta jasotzeko eta euskara erabiltzeko.	d) Durante la realización del trabajo, se garantizará el derecho de la ciudadanía a ser atendida en euskera y hacer uso del euskera.
-Kontratuaren xede diren ondorengo agiriak euskaraz eta gaztelaniaz idatziko dira: memoria, aurrekontuaren laburpen orria eta planoak (izenburuak eta legendak).	-Los siguientes documentos objeto del contrato se redactarán en euskera y castellano: memoria, hoja resumen del presupuesto y planos (títulos y leyendas).
10.- ALDIZKAKO INFORMAZIOAK	***10.- INFORMACIONES PERIÓDICAS***
HAMABOSTEAN BEHIN, gutxienez, adjudikaziodunak, proiektua egitearen pertsona arduradunaren bidez, unean-unean pasatuko dio informazioa udalari, udaletxean bertan, kontratuaren	Cada QUINCE DÍAS, como mínimo, el adjudicatario, a través de la persona responsable de la elaboración del Proyecto, informará puntualmente al Ayuntamiento, en la propia casa consistorial, sobre la

xede diren lanen inguruan. Ondorio horietarako, joan-etorrien gastuak eta dagozkien dietak sartuta egongo dira lizitazio oinarriaren prezioan.	marcha y desarrollo de los trabajos objeto de contrato. A estos efectos, los gastos de desplazamientos y dietas correspondientes se entenderán incluidos en el precio tipo de licitación.
Halaber, enpresa adjudikaziodunaren bulegoetara jo dezake udalak, enpresak egiten diharduen lana gainbegiratzeko. Pertsona hori bertaratu beharko da udaletxean egiten diren edo berak antolatzen dituen bilera guztietara.	Asimismo, el Ayuntamiento podrá visitar las dependencias de la empresa adjudicataria para supervisar la labor que ésta esté llevando a cabo. Dicha persona deberá estar presente como interlocutor principal en todas las reuniones que se celebren en el Ayuntamiento, o que sean organizados por él.
11.- BEHAR DIREN BAIMENAK PROIEKTUA EXEKUTATZEKO	***11.- AUTORIZACIONES PRECISAS PARA LA EJECUCIÓN DEL PROYECTO***
Enpresa adjudikaziodunak egin behar ditu behar diren gestioak, bai enpresa hornitzaileen aurrean, bai administrazio eskudunen aurrean, proiektua exekutatzeko behar diren baimenak lortzeko; nolanahi ere, eskaera formalak udalak bete behar ditu.	La empresa adjudicataria deberá realizar las gestiones precisas, tanto ante empresas suministradoras, como Administraciones competentes, para la obtención de las autorizaciones que sean precisas para la ejecución del Proyecto, sin perjuicio de que las solicitudes formales sean cumplimentadas por el Ayuntamiento.
12.- AKATSAK ZUZENTZEA ETA ERANTZUKIZUNAK	***12.- SUBSANACIÓN DE ERRORES Y RESPONSABILIDADES***
Kontratistak idatzitako proiektuei eta akatsak konpontzeari dagokienez, hutsuneak zuzentzeari dagokionez, kalte-ordainak emateari dagokionez desbideratzeak izateagatik obrak exekutatzean eta erantzukizunei dagokienez proiektuan akatsak izateagatik, aplikatuko da Sektore Publikoaren Kontratuen 9/2017 Legearen 314 eta 315 artikuluetan xedatutakoa.	En relación con los proyectos redactados por el contratista y la subsanación de errores, la corrección de deficiencias, las indemnizaciones por desviaciones en la ejecución de obras y las responsabilidades por defectos o errores del proyecto, es de aplicación lo dispuesto en los artículos 314 y 315 de la Ley 9/2017, de Contratos del Sector Público.
II.- PROPOSAMENEN EZAUGARRIAK	**II.- CARACTERÍSTICAS DE LAS PROPOSICIONES**
13.- TXOSTEN TEKNIKOA	***13.- MEMORIA TÉCNICA***
Enpresa lizitatzaileak agiri bat aurkeztu beharko du, "MEMORIA TEKNIKOA" izenekoa, behar bezala zenbakiturik, dagokion aurkibidearekin, zeinetan, zerrendaturik, aspektu batzuk jasoko dituen, baloratuko direnak memoria teknikoaren eta lan	La empresa licitadora deberá presentar un documento denominado "MEMORIA TÉCNICA", debidamente paginado, con su índice correspondiente, en el que de forma enumerada se recogerán los aspectos que serán objeto de

programaren gaineko ataletan, eta haren edukia nahikoa izango da egin beharreko obren nondik-norakoa eta edukia neurtzeko.	valoración en los apartados referidos a la Análisis Técnico y al Programa de Trabajo, y cuyo contenido será suficiente para calibrar el alcance y el contenido de las obras a realizar.
Agiri horren edukia eta zehaztea baloratuko da lizitazioko obrak adjudikatzen direnean.	El contenido y la pormenorización de dicho documento será valorado a la hora de proceder a la adjudicación de las obras objeto de licitación.
Lizitatzaileen eskura jarriko da eremuaren kartografia *.dwg formatuan, proposamena prestatu dezaten.	Se pondrá a disposición de los licitadores la cartografía del ámbito en formato *.dwg, con el objeto de preparar la proposición.
Agiria egin behar da eskema honen eta atal hauen arabera:	El documento deberá desarrollarse conforme al siguiente esquema y apartados:
Azterketa Teknikoa	**Análisis Técnico**
- Esku-hartze eremuaren hiri azterketa bat, haren ingurunea, beharrizanak eta abar.	- Análisis urbano de la intervención y su incidencia en el entorno (necesidades, etc.).
- Izan litezkeen diseinu proposamenak eta horien justifikazioa.	- Posibles propuestas de diseño y justificación de las mismas.
-Metodologia proposamena, materialen aprobetxamendua maximizatzeko, eraiste hondakin direnena, eta minimizatuko da frakzioa, eraiste proiektuan isurtegirako dena. Lizitatzaileek erabili ahal izango dute erreferentzia moduan Gida metodologikoa gaikako eraiste proiektuak egiteko Euskal Autonomia Erkidegoan, Ihobe-rena (7. Kapitulua) eta/edo Ihobe-ren Manualaren XIV. Eranskina eraikuntza eta eraiste hondakinen eta gremio praktika onen gestio plana idatzi eta ezartzeko.	-Propuesta metodológica para maximizar el aprovechamiento de materiales en que constituyen residuo de demolición, minimizando la fracción destinada a vertedero en el proyecto de derribo. Los licitadores podrán utilizar como referencia Guía metodológica para la elaboración de proyectos de demolición selectiva en la comunidad autónoma del País Vasco de Ihobe (capítulo 7) y./o el Anejo XIV del Manual Ihobe para la redacción e implantación de plan de gestión de residuos de construcción y demolición y buenas prácticas gremiales.
Lan egitaraua	**Programa de trabajo**
-Proiektuaren eskema, non lizitatzaileek zehaztuko baitute eskematikoki proiektuaren agirien edukia.	- Esquema del proyecto, en el que los licitadores definirán esquemáticamente el contenido documental del mismo.
- Antolaketa plana, non lizitatzaileek azalduko baitituzte talde teknikoaren ezaugarriak eta esperientzia, eta hura zer-nola antolatu kontratua	- Plan de organización en el que los licitadores explicarán las características y la experiencia del equipo técnico y cómo proponen organizarlo para la

exekutatzeko.	ejecución del contrato.
-Lanaren programazioa, non lizitatzaileek programazio bat aurkeztuko baitute agiriaren xedeko lanen inguruan. Programa horrek gutxienez eduki behar du barra diagrama bat, zeinak adieraziko duen zer fase eta lan egin behar diren.	-Programación del trabajo, en el que los licitadores presentarán una programación del desarrollo de los trabajos objeto del Pliego. Dicho programa deberá contener como mínimo un diagrama de barras expresivo de las distintas fases y labores que sea preciso desarrollar.
14.- ***MEMORIA TEKNIKOAREN LUZE-ZABALA***	***14.- EXTENSIÓN DE LA MEMORIA TÉCNICA***
"Memoria teknikoa" sartuko da "B" gutun azalean, eta gehienez izan behar ditu 10 orrialde DIN-A4 formatuan, aurkibidea eta eranskinak barne, eta bi plano (ondo irakurtzeko moduan, diseinatu diren DIN formatuan inprimatutakoan).	La "memoria técnica" será incluida en el sobre "B" y deberá tener como máximo 10 páginas en formato DIN-A4, índice y anexos incluidos, y dos planos (bien legibles una vez imprimidos en el formato DIN en que han sido diseñados).
Ez dira baloratuko memoria teknikoak, baldin eta ez badituzte errespetatzen oso-osorik edukia eta klausula teknikoen agirian adierazitako atalen ordena.	***No serán objeto de valoración las memorias técnicas que no respeten íntegramente el contenido y, orden de apartados señalados en el Pliego de cláusulas técnicas.***
Baldin eta aurkeztutako memoria teknikoak gainditzen badu esandako orri kopurua, atal horretako balorazio irizpidea baloratuko da 0 punturekin.	***En el caso de que la memoria técnica presentada supere el número de páginas señalado, el criterio de valoración correspondiente a dicho apartado será valorado con 0 puntos.***
15.- PROIEKTUAREN EDUKIA AURKEZTEA JENDAURREAN.	***15.- PRESENTACIONES PÚBLICAS DEL CONTENIDO DEL PROYECTO.***
Lizitatzaileek, kontratuaren zeregin horiek egitea eskaintzeaz gain, eskaini ahal izango dute jendaurrean aurkezteko konpromisoa, kontratuaren xedearen inguruan edozein fasetan, eta horiek osatuko dituzte proiektua idaztearen berezko lanak.	Los licitadores, además de ofrecer la realización de las tareas objeto del contrato señaladas, podrán ofrecer el compromiso de realizar presentaciones públicas relacionadas con el objeto del contrato en cualquiera de las fases, que complementarán las labores propias de la redacción del proyecto.
Prest egotea edo ez egotea bilera horietara joateko, eskatzen zaienean hori, baloratu egingo da eskaintzen azterketan. Balorazio irizpide horren objektibazioa binarioa baion ezin da izan, bai edo ez, iritzi subjektiborik gabe.	La disponibilidad o no para acudir a dichas reuniones cuando sean requeridos para ello será objeto de valoración en el análisis de las ofertas. La objetivación de este criterio de valoración sólo podrá ser binaria, sí o no, sin apreciaciones subjetivas.
Hori aukeratuz gero, proiektua idaztearen arduradunak arduradun politikoekin eta udal zerbitzu	De acogerse a esta opción, los responsables de la redacción del proyecto acompañarán a los

teknikoekin batera arituko dira aurkezten jendaurrean proiektuaren edukia, eta ez dira izango lautik gora.	responsables políticos y a los servicios técnicos municipales en las presentaciones públicas del contenido del proyecto que sean necesarios, y que no excederán de cuatro.
Nik neuk egin dut, Arrasateko Udalaren idazkariak, agerrarazteko klausula teknikoen agiri hau Tokiko Gobernu Batzarrak onartu zuela 2022ko ekainaren 16an.	La extiendo yo, la Secretaria del Ayuntamiento de Arrasate, para hacer constar que el presente documento de Pliego de Prescripciones Técnicas fue aprobado por la Junta de Gobierno Local de fecha 16 de junio de 2022.
I. ERANSKINA	**I. ANEXO**